

Elgoibar B.H. Institutua

Arregitorre 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net

www.elgoibarbhi.net

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Ibilgailuen elektromekanika

Karrozeria

Merkataritza

Erizaintza-laguntza osagarriak

GOI MAILAKO ZIKLOAK


Automozioa

Administraritza eta finantzak

Haur-hezkuntza

ELGOIBAR B.H. INSTITUTUA

2008/09 IKASTURTEA



Aurrematrikula-epaia:
Ekainaren 2tik 13ra



🌀 PIL-PILEAN

Hau markia izango juau horraittio!

Ur-agorra Eskola-igesi **Irittia**

Eskua txanbututa **tulia**

Lasta-azauak **HARPASUAK**

Mandarra **EGON HARI POLIKI!**

Graziak! Intxorpia *Ganajatekuak egin*

Hz najuan asko **Abutsa**

esango! **ukatx** Koko**z** b**e**t**e**ta

HOBI NESKA MARTIKIA
Txanala **Eskirola**

imillana *inore* **Oiñeztarririk jo**

Noizik behiñian **ihotu** **Etxia gorri**

LEKU EDARRIAN GABIZIK!

DBH amaitu ondoren

Batxilergoa ikasi ondoren

Goi-Mailako Zikloen ondoren

**Heziketa Zikloak
 Erdi-Maila**



2 urtez

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoa

**Heziketa Zikloak
 Goi-Maila**



2 urtez + 3 urtez = eman 50ekoa!

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa(*)
- Industri ekipoen mantenimendua(*)

BERRIA:

(*) **IKASI** eta **LAN 3 urtez**
 Irakaskunta eleanitza

**IMH Ingeniaritza
 Eskola**



- 3 urtetako lan esperientzia
- Ikasi eta lan txandakako metodologia
- Ikasketak ordaindu lanean irabazitakoarekin
- Boloniako Itunean indarrean dagoen titulu europar ofiziala

Titulua: Ingeniaria



Ate irekiak:

Maiatzak 31, larunbata – goizeko 11:00etan



IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es

Lantokian

**Ikusiko
 duzu!**



SORALUZETIKO EUSKAL JAIAK 2008

ekainaren 1etik 11ra

EKAINAK 1 DOMEKA

XXXVIII. Haurren Euskal Jaia,
egun osoan zehar.


.....



EKAINAK 5 EGUNA

Hitzaldia: "Apaizac hobeto",
Jon Maiaren eskutik.
19:30ean Kapillan.

.....



EKAINAK 6 BARIKAKUA

Umeentzako arrantzaleen jolasak,
Kulkiren eskutik.
19:00etan Plaza Zaharrean.

.....



EKAINAK 7 ZAPATUA

Erromerixa Eguna Ezozin,
egun osoan zehar.

.....

EKAINAK 11 EGUAZTENA

Ahotsak proiektuaren aurkezpena.
19:00etan, Udaletxeko Saio Aretoan.

.....

ahotsak.com



HEGO HAIZIA AZALIAN ETA BURUAN

Aupa Mori!
Udaberriko epeltasun eta argittasunak odola berotzen dabela diñue eta ni be baiezku nago; beste animo batekin urtetzen gara kalera hilabetietako lozorrua atzian laga eta jendiakin egoteko gogoz.

Jendia ezagutu eta ligatzeko garai onena be ointxe hasten da, hego haizia azalian eta hego haizia buruan! Baina hego haizia bakarrik ez da nahikua mutiletan/neskatan egittako; gure inguruan panoramia nahiko eskas daguala aspaldittik jakin arren, ikusi noraino heldu dan batzuen frustraziñua; elkarte bat be sortu dabe, eta lehen manifa be egin dabe honezkero: “hemen ez dago txortan eingo daben aman semerik/alabarik” (danontzako doia ta, ez pentsa!)

Gizurra emoten dau garai baten gure arbasuek Akelarriak ospatzen zittuztenik; nun geratu ziran garai harek... Erromerixak be bide on bat ziran bikotia edo ligeren bat topatzeko, musikia lagun eta, nesken kasuan behintzat, erropa pilua kentzeko! Gaur egun Akelarrien partez ligatzeko web orrixak, manualak, bikotia topatzeko bidaia antolatua eta abar luze bat daukagu, baina baten batek balio ete dau benetan? Naturaltasunakin egin biharrekuak hobeto naturalki egittia.

Ez dakit arazuari konponbidia emoteko ete dan, baina badakizu Soraluzen datorren hilian Erromerixa egun bat antolatzeko asmua daguala? Prestatuta jua Ezozi aldian ez dago eta kondoi makinarik. Bestela, badakizu, imajinaziño pixkatekin, lixto! ☺

Nun geratu ziran Akelarrien garaixak?

Enara Agirre

Ligatzeruzkuan porrotari bildurra galdu bihar jako

Aitor Morillo

Kaixo Akelarrezale!
Dagoeneko heldu da udaberrixa bai! Nere begi gorrixak eta sudur itxixak be igarri dabe! Gora akaro eta polenak!

Berotu xamar zatozela igartzen dot! Zuri be hego haizia barruraino sartu jatzu, e? Nik galdera bat dakat elkarte horren inguruan: manifa eta gero behintzat beren frustraziñua baretzeko plana egingo zeben, ezta? Hau da, bertara jua ziran neska-mutilak gero “bacanal” antzeko bat edo egingo zeben; danak arazo berdina eukitta eta konponbidia hain erraza eta bistakua izanda! Seguru nago bilkura amaittu eta bakoitza bere etxera jua zala messenger bidez manifa bi pausora euki zeban neska edo mutilakin ligatzera. Gora “zibersexu-oral”! Uf! Hego haizia ez baina iparra aspaldi galduta gabiz danok.

Normalian harremanen esparruan dana zailtzeko joera dakagu! Inork ez dau esan erraza danik baina neska edo mutil horren aurrian zarela, beragaittik sentitzen dozuna esateko eztarriko korapilua askatu nahixan; egoera horrek be ez ete daka bere xarma? Irtenbidia porrotari beldurra galtzia da. Originaltasuna, kreatibitattia bilatu, mugak gaindittu eta batez be jolastu eta gozatu! Askatasun osoz!

Agurtu aurretik azken gauzatxo bat, Enara, erromerixian eta kondoiaren asunto honekin igual negoziua egin leike, Ezozira txakurjanean furgonetia eraman biharrian kondoi furgoneta edo “maitasunaren karabana” eraman geinke! Izan gaiztua eta gozatu hego haiziaz! ☺

Goguan hartzeko

Muxu batean, ixilean gorde dizudana jakingo duzu.

Pablo Neruda, poeta txiletarra



GUTUNAK

Lankidetza

Soraluzeko Udalean lankidetzan jarraitzeko asmoarekin, Udal Gobernuaren osatzen dugun EAE-ANV eta EAko partaideok printzipio hauen inguruan konpromisoa hartzen dugu:

- Soraluze anitza da. Pentsamolde, sinesmen, ohitura desberdinez osaturiko herria da, eta hori kontuan hartuta, elkarbizitza eta errespetua bultzatzea izango da gure eginkizuna, horren aurka doazen jokabide guztiak baztertuz eta errefusatu.

- Indarkeria guztien desagertzea ahalbideratuko duen eszenatoki demokratikoa eraiki behar dugu eta konponbidea lortze aldera guztion arteko elkarriketaren bidezko akordioa politikoaren alde lanean segituko dugu.

- Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoari dagokienez, gaur egun bizi dugun egoera - indarkeriaz eta eskubide-urratzez betea - onbideratzeko konpromiso irmoa hartzen dugu, indarkeri eta gisa eskubide urraketa guztiak baztertuz eta bi-

tarteko zibilak eta politikoak soilik erabiliz, inongo bazterketarik gabe.

- Herritar guztien eskubide zibil eta politikoak defendatuz, bide demokratiko eta baketsuak erabiliz politikan aritzeko denok dugun eskubidea aldarrikatzea nahi dugu.

- Udaleko ordezkari guztiek, herritarren ordezkari diren momentutik, merezi duten errespetutik abiatuz, beraien ikusmoldeak aintzat hartzeko konpromisoa adierazten dugu.

- Beti ere, Soraluze herriaren etorkizuna kontuan izanda, kudeaketa gardena eta publikoa burutzen jarraituko dugu, herritarrei inolako informaziorik ezkutatu gabe, denak kontuan hartuta, irizpide etikoak eta parte hartzea sustatuz.

- Borondate sendoa dugu normalizazio politikoaren eta bizikidetzaren demokratikoaren alde leialki eta eten barik lan egiteko, gure izaera propioa, naziotasuna, euskara edo euskal kulturaren aldeko proiektuak bultzatuz.

UDAL GOBERNU TALDEA

Erregetzeko Aparkalekuak

Denok dakigu Udalerrian aparkaleku gabeziaren ondorioz daukagun arazoa larria dela. Aurreko legealdian EAJ/PNV Udal Taldeetik Erregetzeko orubean aparkamentuak egiteko asmoa azaldu genuen; konkretuki, lurrazpia saldu (lur publikoa) aparkamentu pribatuak egiteko (prezio tasatu batekin), eta salmentatik ateratako diruarekin kiroldegiko zinea zaharberritzea. Jakinekua da legealdi honetan Udal Gobernuaren osatzen duten alderdien jarrera kontrakoa zela. Beraien Erregetxerako aparkamentuak bai, baina publikoak izatearen aldeko apostua egin zuten.

Apirilaren 10ean buruturiko Hirigintzako Batzordean Udal Gobernuaren aldetik kontsulta bat luzatu zitzaigun alderdi politikoei. Planteiatu zitzaigun Erregetzeko orubean aparkamentu publikoak egiteko asmoa daukatela. Eta proiektu hau finantziatzeko "U" deritzan gunean aparkamen-

tu pribatuak eta etxebizitza tasatuak egitea. Kontsulta honen aurrean EAJ/PNV Udal taldeak honakoa jakinarazi nahi du:

1- Erregetzeko lur-azpia saltzearen aurka agertu ziren hauek nola daiteke berdina planteiatzea, baina kasu honetan "U" (lur publikoa) deritzon gunerako?

2- "U" gunea Arau Subsidiarioek parke publiko bezala kalifikatzen dute. Nola daiteke bertan aparkaleku pribatuak eta salmentarako etxebizitza tasatuak egitea planteiatzea?

Benetan harritu egin gaitu Udal Gobernuak eginitako kontsulta aparkamentuen inguruan. Dena dela aztertuko dugu eta emango dugu gure erantzuna. Bestalde, herritarrek ere jakin eta aztertu dezaten nahi dugu. Etorkizunean izango dugu berririk gai honen inguruan.

SORALUZKO EAJ/PNV UDAL TALDEA

na da. Jolas zikina egiten ari dira eta gero kexatu egingo dira. Entzun, irakurleak: Zapatero bere poltronan dago eta Rajoy faxista bat da, PPkoak Francoren bilobak direlako. Nik egia esaten dut. Guk ez dugu AHTrik nahi! Telebista elementu mediatikoa da, egia da. Bukatzeko esan behar diet: inoiz ere ez dugu barkatuko.

GABRIEL GALAN

Egungo egoera politikoaz

Momentu honetan, eta antzinakoan ere, politikari eta demokrata batzuek diote -espainiarrek - gaur denok Euskadin terroristak garela. Madrilako politikoak, juezak eta kartzelak. Guk, euskaldunok, askatasuna eta independentzia nahi ditugu, dispersiorik gabe, eta hori ez dute gertatuko. Borrokatu egin beharko dute. Dirua ahalme-

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinu eta maketazioa:** Silvio Vaz **Komikixia:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



bittartetik



Aitor Madrid

Errezeta zaharra

Zurrumbilo zoroan berriz murgildu gara. Alde batekoen bonbak eta tiroak, beste aldekoen tortura, ilegalizazio eta dispersioa. Behin eta berriz errepikatzen den gupil zoroa. Gerrako gizonek agintzen dute beste behin, eta urrun ikusi leike irtenbidea.

Europako metroa izango den AHTan Parisera, Bartzelonara, Londresera, Berlinera... joan ahal izango gara. Ordu gutxiren buruan Madrilen egongo gara, adibidez. Txanponaren beste alde ikusi beharko litzateke, ordea. Azpiegitura erraldoi hau egiteko ordaindu beharko dugun faktura, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Fakturak, bai ekonomikoa baita ekologikoa ere, izugarri handiak izango dira eta. Beste alternatibarik dagoen aztertze borondaterik ba ote dago?

Sasoi ilunak bizi ditugu. Denok nahi dugu bakean bizi, guztiok gura dugu garraio duin bat. Hau lortzeko zer egin? Inposaketaren errezeta erabili? Edo ohe ondoko kajoian ahaztuta geneukan negoziazioaren errezeta erabili dezakegu. Eta guztion artean irtenbideak adostu, irabazlerik eta galtzailerik egongo ez den irtenbideak. Denok irabazle izan gaitezen.

((ENTZUTEKUAK))

Goiatz Minguez

Berdintasun Planerako teknikaria

Zeini zuzendutakua izango da Berdintasun Plana?

Bi norabidietan lan egin da. Juan zan urtian Udaletxe barrukua egin zan, bertako langilien artian zenbat gizon-emakume daren, ze formakuntza dauken, ze kargu, ze jarrera berdintasunakiko... Eta oin herrixari begira dihardugu, diagnostikua egitten. Herriko baliabide eta zerbitzuak zelakuak diran, zeinek erabiltzen dittuan, emakumiendako zer dagan...

Arlo desberdinetan diharduen herriko emakume batzuekin batu zara.

Zein dira bihar nagusixak?

Osasun arlua izan da larrixena. Ez da egokitu egoera barrixetara eta ez dago bihar besteko zerbitzurik. Azpiegitura defizitak eskaintza defizita be badakar, arlo honetan eta kultura, kirola eta bestelakuetan.

Berdintasunerako bidian, sensibilizazio eta kontzientziazio lanan biharra daguala be argi geratu zan.

Gizonezkuengan ze aldaketa bihar da?

Emakumiak arlo desberdinetan dihardugu, baina jarraitzen dogu zaintza eta etxeko ardurekin, lanegun amaiezina eukitzen. Gizonezkuak be pentsakera aldaketa bat eduki bihar dabe, orain arte inplikatu ez diran kontuetan ardurak hartze-



ko, eta emakumiak be prest egon biharko dira ardura horrek gizonezkueri lagatzeko.

Debabarreneko herrietako diagnostikoak eta Berdintasun Planak egiten dihardu

Osasun arluan gabezia haundixa dago Soraluzen

Planak zein garpn izango dabela aurrikusten dozu?

Berdintasun planak epe bat eta aurrekontu bat daukaz.

Sekula gai hau landu ez daben herri baterako, seguraski, lehenengo berdintasun plana aurrerapauso bat da baina lehen pauso bat. Plan honekin ez da berdintasun erreala lortuko. Larrixenak diran beharrianerri erantzuna eman biharko jakue.

Elgoibar, Deba eta Mutrikuko Udaletan egoten zara. Soraluzen zergatik ez?

Udalak ez zeban zerbitzurik kontratatu, berdintasun teknikari propiua ipini nahi zebalako, baina aurrekontuak onartu ez ziranez, bertan behera geratu zan. Teknikarixakin askoz aurrerapen gehixago egingo lirake, eguneroko jarraipena egingo leuelako. ☺

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIVA

Esku eskura! Telf.: 943 75 13 45

Motorzaleen 11. kontzentrazioa egingo da asteburuan



2007ko kontzentrazioan, Plaza Zaharrean

Plaentxi Motor Elkarteak maiatzaren 24 eta 25 egunak aukeratu ditu motorzaleen kontzentrazioa egiteko. Zapatuan arratsaldeko 16:00etan izen emateak egingo dira eta 18:00etan gasolinazko kotxe txikien erakusketa frontoian. 20:00etan musika

kontzertuei hasiera emango zaie Plaza Zaharrean, eta goizaldeko 3rak aldera arte iraungo du, Soraluzeko Punktapie eta Clavoxidado eta Oñatiko Tribute to turbonegro eta Hammer musika taldeen eskutik. Bitartean, 21:30etan afaria eta gauerdian oparien zozketa egingo dira.

Futbol Zelaian akanpatu ostean, domekan, gosaria

eta izen ematea egingo dira eta 11:00etan ibilbideari ekingo diote. Soraluzen hasita, Bergara, Oñati, Legazpi, Zumarraga, Azkoitia eta Elgoibar pasatuko dituzte, berriz Soraluzera etortzeko. 14:00etan babajana eta opari zozketa egingo dituzte. ☺

Atentatuagatik kontzentrazioak

Maiatzaren 14ean ETAk hildako Guardia Zibila gogoratu eta atentua gaitzesteko kontzentrazio bi egin ziren Plaza Barrixan biharamunean, "Bakea da bidea" lelopean. Bata eguadiako 12etan egin zen eta bestea iluntzean.

PSE-EEko Soledad del Bosquek eskerrak eman ditu

Udaleko zinegotzi den Soledad del Bosquek eskerrak eman nahi dizkio herriari emandako babesa eta elkartasunagatik. "Isaias Carrascoren hilketaren ostean, inoiz baino telefono dei gehiago jaso ditut, babesa eskainiz", dio Solek.

Haurren zaintzarako lan eskaintza guraso elkartetik

Plaentxi Herri Ikastetxeko Guraso Elkarteak, Udalaren eta Ikastetxearen laguntzaz, haurtzaindegi zerbitzua eskainiko du datorren ikasturtetik aurrera. Zerbitzu horiek eskaintzeko langileak kontratatuko dira, eskola dagoen egunetarako eta eskolarik ez dagoen egunetarako. Euskaraz jakitea ezinbestekoa da eta lehentasuna egunean hiru txandak egiteko aukera daukatenak izango dute. Izena eman edo informazioa eskatzeko, Udaletxera deitu daiteke (943 75 30 43) eta Mikelenagatik galdetu.

Ileapaintzaileentzat eskaintza Jubilatuta Etxetik

Itxaropenako ileapaindegi zerbitzua kontratatzeko baldintzak kaleratu ditu Udalak. Tituloduna izan beharra dago. Emakume eta gizonentzako zerbitzua izango da. Dokumentazioa jasotzeko Jubilatuta Etxera jo behar da, 11etatik 12:30ak bitartean eta Udaletxean entregatu, gaurtik hogeita eguneko epean.

Paittak patioan

Gaboltzeko 5. atariko etxearen patioan paitta eme bat bere kumekin irten ezinda geratu da. Bizilagunek jaten eta edaten ematen diete eta kumeak handi egin eta hegan irten arte, bertan zainduko dituzte.



TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789



MENDIZABAL okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategiata 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



“Jakitzetik erabiltzera” jardunaldiak ekainaren 14an

Haurreskolako matrikulazioa zabalik

Soraluzeko Haurreskolan izena emateko epea maiatzaren 19tik 30era bitartean dago zabalik. Haurreskolak 21 plaza eskaintzen ditu, zortzi 0-1 urteko gelan eta hamahiru 1-2 urtekoan. Maiatzeko deialdi honetan irailan edo urrian hasiko diren haurrek eman ahal izango dute izena. Informazio gehiago Haurreskolan bertan eskura daiteke, 943 75 13 32 telefono zenbakian.

ZERIKASIren eskaintza

www.zerikasi.com 943 74 82 71

Zerikasi

Eibar: UEUko ikastaroak.

Elgoibar: Uretako sorospidetza eta KDA Udal Kiroldegian, maiatzaren 31tik ekainaren 7ra.

Mendaro: Dantza latinoak.

Deba: Santa Maria Eliza Ondare Erlizjiosoa ezagutzeko kultur bisitaldiak ekainean eta Surf ikastaroa (Hastapena) ekainaren 15etik irailaren 15era.

Mutriku: Nautilus zentrora bisita eta Saturraran arteko barku irteerak ekainean.

Orokorra: Erdi eta Goi mailako Heziketa Zikloen prematrikulak zabalik, ekainaren 2tik 13ra.



Soraluzeko 26 elkartetako sordezkariak bilduko dira ekainaren 14an (zapatua) Udaleko batzar aretoan. Euskararen egoeraren inguruan gogoeta egitea izango da jardunaldion helburua. “Jakitzetik erabiltzera” izenburupean, Bai Euskarari erabilera planean parte hartzen duten elkarteek, erabilera planetan sartuta dauden gainerako elkarte eta herrien errealitatea ezagutu, 2008rako bakoitzak hartutako konpromisoak agertu

eta etorkizunean egin daitekeenaren inguruan berba egitea da asmoa. Gainera, etorkizunean Bai Euskarari izatetik Euskaraz Bai izatera pasatuko da plana eta hori praktikan zela gauzatu ere aztertuko dute.

Jardunaldiak goizeko 10:30ean hasiko dira eta 13:30ean amaitu, Kontseiluaren X. urteurreneko bideoarekin. Ateak irekita daude parte hartu nahi duten guztiendako. ☺

2007ko ziurtagiri banaketa ekitaldia

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**
Hotzian eta beruan jotako tornilluak
Errekalde 21 20590 SORALUZE
T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

HNOS. BENITO ANAIAK 
Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe
T. y F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34 

GURE ZERBITZUAK • Ortodontzia ikustezina
• Inplanteak
ELIZPE
Hortz Klinika
✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA
ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)
Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67



Euskara ez dago salgai

Bistan da garajea saldu nahi duela oharraren egileak. Hori egitean, ordea, ez du zalantzarik izan: euskara ez du salduta utzi.



Zer egin?

“
Ibilaldia Zornotzan izango da domeka honetan eta Araba Euskaraz, Bastidan, ekainaren 15ean.
”

Ibilaldia eta Araba Euskaraz

Urtean zehar ikastolen aldeko 5 jai egun antolatzen dira. Jai egun eder hauetan jasotako dirua ikastolen egitasmoak indartu eta ikastola berriak sortzeko erabiltzen da gero. Herri Urrats pasatu zen eta orain Ibilaldia eta Araba Euskaraz datozkigu ate joka. Ikastolei eta euskarari lagunduz, egun eder bat pasatzeko aukera da. Goazen!



Euskararendako tokirik ez

Leku honetan ez omen dago kanpoko autoendako lekurik, eta bertako hizkuntzarendako ere ez itxura denez.



ALBISTEAK

Arrano Elkarte

- Bilerak euskaraz.
- Oharrak eta idatziak euskaraz.
- Ordenagailuan euskarazko softwarea.

2008rako konpromisoak

- Hornitzaileei fakturak euskaraz bidaltzeko eskatu.
- Elkarteko hizkuntza irizpideak idatziz jaso.



Zulotik
begira

Olatz, sexologiako aditua, elkarrizketatu genuen. Gure eskolara etorri zenean, astebeteko ikastaro bat emateko, momentua aprobetxatu eta galdera batzuk egin genizkion.

Karrera edo ikastaroa egin duzu? Zenbat urterekin egin zenuen?

Olatz: Soziologiako karrera eta sexologia ikasketak ditut, 19 urterekin hasi nintzen.

Zenbat urte iraun zuten ikastaro edo ikasketa horiek?

Olatz: Karrerak bost urte eta sexologiako ikasketak 4 urte.

Zerk bultzatu zintuen ikasketa horiek egitera?

Olatz: Karrera egiten nengoen bitartean sexologiako ikastaroak eduki genituen eta interesgarria iruditu zitzaidan.

Hasiera batean jendearen aurrean hitz egiteak lotsa ematen zizun?

Olatz: Bai, hasiera batean lotsa gehiago ematea normala da. Baina gutxinaka ohitura hartzea ona dela pentsatzen dut.

Zenbat urte daramazu horrelako ikastaroak ematen?

Olatz: 8 urte.

Zein adinetako jendearekin egoten zara gusturago? Zergatik?

Olatz: 16 urteko jendearekin, zuen adineko gazteekin. Lan egiteko helduak muga asko ipintzen dituzte beraien gauzei buruz hitz egiteko, eta arlo hauetan konfidantza gehiago eduki behar da.

Diru asko irabazten da?

Olatz: Bizitza normal bat eramateko, nahikoa.

Zer da gehien gustatzen zaizuna sexologian?

Olatz: Gazteekiko lana, hezkuntza eta aholkularitza.

Gustura sentitu al zara gure ikastetxean?

Olatz: Bai, asko.

Etxean sexuari buruzko informazio gehiago eman behar dela pentsatzen duzu?

Olatz: Nik uste dut informazioa badagoela baina gero informazio hori erabiltzen ez dakigula.



Horrelako ikastaro gehiago jasotzea komenigarria dela pentsatzen duzu?

Olatz: Bai, baina luzeagoak izan beharko lirakeela uste dut. Egun gutxi dira informazio askorako.

Asko ikasi duzu zuk urte hauetan?

Olatz: Bai, asko. Nire bizitzako egun guztietan zerbait ikasten dut.

Eskerrikasko Olatz zure harretarengatik. Gure iritziz horrelako tailerrak oso ondo daude. Sexuari buruzko ditugun duda asko argitzea eta gure gorputza hobeto ezagutzea lortzen dutelako. Horrek gure bizitza sexuarekin arazorik ez edukitzea eta naturaltasunez jokatzeko laguntzen gaitu. Gainera, jendearen aurrean hitz egiten eta gure pentsamenduak beldur gabe espretsatzen ikasten dugu eta, horrela, pertsona irekiago eta seguruagoa izatea lortu.

Egileak: Maite Dominguez, Ane Laderas, Ane Kintanilla, Maider Garcia eta Nerea Garcia.

HARPASUAK

Ur-agorra

LEKUE DARRIAN GABIZIK!

Esango! Abutsa

Graziak! Eskola-igesi

Oineztarrixak jo

Eskua txanbututa

MODIA

Lasta-azauak

Mandarra

Soraluzeko euskara eta ahozko ondarea

Hizkuntza aldatu egiten da denboran eta espazioan. Esate baterako, euskara ez da berdina inguruko herrietan eta Soraluzen; ezta duela 50 urte eta gaur egun ere. Ahotsak proiektuak plazentziar adinekoek gorde duten garai bateko hizkera batu eta ezagutzera eman du.

Soraluzeko adineko jendea elkarriketatu eta euren euskara eta bizipenak jasotzea eta herritarren artean zabaltzea da Ahotsak proiektuaren helburua. 2002 urtean Soraluzeko Udalak beka bat eskaini zuen adinekoei elkarriketak egin eta ahozko ondarea batzeko. Orduan jasota dauden grabazioen erdiak egin ziren, audio formatoan, Egoitz Unamuno eta Jon Bausuri elkarriketatzailerak eginak. 2004ean Badihardugu Euskara Elkarteak eta Soraluzeko Udalak lehenengo hitzarmena sinatu zuten, 2004-2005erak lanak eta aurrekontuak zehaztuz. 2006an hitzarmena berritu zen eta 2007an aurkezpena prestatzeari ekin zioten. Lan horren emaitza dira audioan zein bideoan jasota dauden 37 hizlari soraluzetarren kontakizunak. 53 zintatan, 453 pasarte sailkatu dira, hizlaria eta gaiaren arabera. Ume eta eskola sasoiak, baserriko bizimodua, Gerra Zibileko bizipenak, herriko jaiak eta ospakizunak, erlijioa, ofizioak eta beste askori buruz berba egiten dute hizlariak. Guztiak interneteko Ahotsak.com webgunean daude, Soraluzeri eskainitako atalean.

Gerrako bizipenak, umetako kontuak, baserriko bizimodua... kontatzen dituzte hizlariak

Badihardugu Euskara elkarteak da proiektuaren arduraduna

Ekainaren 11an egingo da lanaren aurkezpena

Bukaerarik gabeko lana

Egindako elkarriketa denak gordeta dauden arren, pasarte guztiak ez daude interneten entzungai, ezta transkribatuta ere. Batetik, webguneak proiektuan parte hartzeko aukera ematen du: transkribatu gabe dauden pasarteak entzun eta bertan esaten dena idazten lagun daiteke. Bestetik, 37 hizlarira mugatu gabe, elkarriketak egiten jarraitu nahi du Badiharduguk.

Aurkezpena Euskal Jaietan

Ekainaren 11an egingo da "Soraluzeko euskara eta ahozko ondarea" proiektuaren aurkezpena, iluntzeko 19:00etan Udaletxeko Saio Aretoan. Bertan Aintzane Agirrebeña Badiharduguko arduradunetako bat izango da orain artean egindakoaren berri emateko.

Euskal Herri osoko ondarea helburu

Soraluzekoarekin batera, Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak katalogatu eta heda-

tzea da Badiharduguren helburu nagusia. Elkarteekin, ikerlariekin eta Udalekin hitzarmenak lortu dituzte. 2012. urterako euskal herri guztietako lekukotasunak Ahotsak.com webgunean izatea nahi du Badiharduguk. ☺

37 HIZLARI

1. Alberdi Egaña, Moises.....(1941)
2. Aranberri Laskurain, Margarita (1914)
3. Aranberri Laskurain, Natividad..... (1915)
4. Aranzamendi Uriarte, Miren (1922)
5. Argarate, Gregori(1916)
6. Aristi Artolazabal, Jaime (1939)
7. Arizaga Larreategi, Juan..... (1927)
8. Ariznabarreta Oregi, Marisol (1945)
9. Bandaormatxea Barrenetxea, Julian (1924)
10. Eguren Larreategi, Miren (1928)
11. Elizburu Gorrotxategi, Sebastian.....(1919)
12. Ezenarro Alberdi, Gerardo (1908)
13. Ezenarro Alberdi, Jaio.....(1919)
14. Gabilondo Agirrebeña, Miren..... (1918)
15. Iñurrieta Goikoetxea, Iñaki (1918)
16. Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor..... (1920)
17. Iñurrieta Goikoetxea, Xabier..... (1932)
18. Iraola Larrañaga, Pastora(1916)
19. Larrañaga Arraskaeta, Margarita (1903)
20. Larrañaga Muguruza, Felix..... (1925)
21. Larreategi Jauregi, Juan Carlos (1933)
22. Larreategi Maiztegi, Jose Mari..... (1923)
23. Laskurain Lizarralde, Pedro (1912)
24. Lete Onaindia, Moises(1916)
25. Loiola Txurruka, Miren (1934)
26. Maiztegi Gallastegi, Esteban..... (1925)
27. Maiztegi Gallastegi, Jesusa (1927)
28. Maiztegi Unzueta, Bernardo (1917)
29. Oregi Oregi "Zabale", Antonio (1926)
30. Osa Alberdi, Maria Jesus..... (1940)
31. Osa Alberdi, Miren..... (1934)
32. Txurruka Maiora, Enrique..... (1917)
33. Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis..... (1928)
34. Urizar Murua, Maria(1919)
35. Zabaleta Mantxola, Patxi (1925)
36. Zangitu, Alfonso (1912)
37. Zubizarreta Ormatxea, Martina..... (1921)

EGON HARI POLIKI!

Hau markia izango juau

PASARTEAK

Natividad

Aranberri Laskurain

Gerra osteko gabeziak



“Gero e, irin pixkat jiratzeko be garixakin hamen ez euan inguruan errotarik. Errotia baeuan baiña zerrauta: legiak eren halaxe-ta, ez dakit zer. Osintxura jua bihar izaten zan iriña ekartera. Eta juaten zan, ba, Osuma azpittik, Agarre-beisteittik, Gantxeitxoko goittik zihar astuak hartu, ta Osintxura.

Juan giñan hamar t’erdietan Juli ta bixok etxera eta amak eitten deusku eze: “Ai, ez jaukanau iriñik be ezer eitteko. Talo batzuk eitteko iriñik be ez jakanau ta... Horretzek gari-zorro bixok ihota bageunkanaz sikiera” esan euskun amak. Ta Juli ta bixok: “Geu juango gara. Bigar ordubixetan zelan jua bihar dogun biharrera, ba... bihar goizian lo eitteko geu juango gara”.

Ze, gabian jua ziñan?

- Gabian, gabian. Bagoiaz Agarre-beisteittik harutz eta han baso baten, holan, argi txiki bat. Ene, ba! Linternia edo... “Zein ete da? Zein ete da?”. Baiña jua ein bihar, haraiño jua ezker astuokin, jua ein bihar...

Buelta ezin ein berriro...

- Ezin buelta ein. Juan giñan, allegau giñan eta... ipurtargixa. Mamorro txiki batek ipurdixan argixa eukitzen dau... Ipurtargixa! Haura ikusi giñuanian pozik, “Ene, ipurtargixa!”. Gero, bi asto eren, asto gaztetxo bat eta zaharra zelai baten eta Julik eitten dosta eze: “Nati, honetzek astuok gaiñian jarteko hartu ein bihar jittunau guk”. “Bueno, ni zaharran gaiñian e?” esan notsan. Juli gaztian gaiñian. Juaten jakon gaztia...

Saltoka?

- Saltoka...! Ni zaharran gaiñian... Aspertu giñanian laga genduzen nunbaitten astuok eta... hala! Ene! Zenbat holako ibili, zenbat holako ibili eindakuak gara gu. Baiña irin pixkat jiratzeko be holaxe ibili bihar zan, holaxe ibilli bihar zan. Holaxe ba.”

Nikanor

Iñurrieta Goikoetxea

Gernikako bonbardaketa



“Ta Gernikan zentro-zentruan nenguan ni lagunekin. Zerbezia-edo etorri zuan orduan. Zerbezia etorri zala ta “joño!” kaña bana hartu ta hantxe jarri mahaixan ta... “Café Norte” edo zuan, oso leku politta. Kanpuan mahaixan jarritta, ta... abioia, inspekziñokua edo. Ta joten jua kanpaiak eta jotet jittuen ta... ohittu ein giñuazen! Ez jua botatzen bonbarikan be, ta gu ezta mobidu be ez. Baiña, horraittiokan, hurrengo beste bat etorri zuan ta “daunba!”. Aiba dios! Lehelengo bonbia! Orduaintxe hasi giñuazen mobitzen. Gero, honek, zerak, junkerrak, [juan zittuan] abioi garauak kargau-kargau indda bonbaz. Etortzen zittuan “por oleadas” esaten dana. Mordua, e! “Caza”-k aurretikan ta hurrengo atzetikan “caza”-k berriro. Harek botatzen, hasi zittuan bonbak botatzen, ta gu pixkaka-pixkaka... Hemen plaza zaharrian egotia moduan genguazen, ezta? edo Gilaneko labadero gain inguruan izatia moduan. Ta hasi giñuazen pixkaka-pixkaka txaratik igotzia moduan. Han Lumo edo herri zera, txiki bat. Ta haintxe, lau-gaiñian. Ta parian zianian ta bonbaren bat “ffiii” somatzen genduanian geratu ta expulsatzen ebanian urten berriro ta lau-gaiñian, [aber], igo genduan San Marzialera igotzia moduan jua. Ta han, arbola baten azpitan, lagun bat zuan gernikarra nerekin --oso lagun maittia najuan, gaiñera, ta... Hil zuan haura be aspaldi--, etzanda jarri tripaz behera ta ikusi genduan bonbardeo guztia zeretikan herrixa ikusten dan moduan, e! San Marzialdikan. Nik ikusi najuan bonbardeua ixa lehelengo bonbetatikan, e!”



Iritia
Intxorpia



tulia
ihotu



imillana
Etxia gorri



inore
Eskirola




ukatx
Txanala



ahotsak.com

horraittio! **NESKA MARTIKIA**
Kokoz beteta 2008-05-23




ZOMORRO BILA



PLAENTXI INGURUAN



Udaberria iritsi dela eta gure eskola inguruko baserrietatik (Zeleta, Bozkoiti eta Iriarte) ibitalditxo bat eginez, zomorro bila aritu ginen lau urtekoak: Barraskiloak, kakalardoak, zomorro gorria, zizareak, bareak, armiarma, zirauna, e.a. Hemen iruditan azaltzen dira horietako batzuk... 🐛



Zela imajinatzen dozu etorkizuneko Soraluze?

Zu zelakua izango zara urte batzuk barru?



Maialen Alberdi, 12 urte

Herri haundixagua izango da. Kiroldegixa eta zinia konpondu egingo dittue eta zentro komertzial bat egotia gustatuko litzaidake. Nik fisioterapeuta edo kiropraktika ikasiko dot eta Soraluzen biziko naiz.



Aitor Hernandez, 12 urte

Futbol zelaixa barrittuta egongo da, tenis pista eta rugby zelaixak eta zentro komertzial bat. Ni pistinia daukan apartamentu baten biziko naiz nere lagunekin eta nere herrixan, Soraluzen.

Berrixagua imajinatzen dot. Etxe zaharren ordez, zentro komertziala egongo da eta kiroldegi gainian parkia. Ikastera kanpora juaten banaiz, han biziko naiz, eta ileapaintzailia izango naiz.



Maialen Vila, 11 urte


Erreka garbixa, maskota denda bat eta zoo bat, eta zinia konponduta egotia nahi neuke. Futbolista izatia da nik nahi dotena baina nire aittan moduan, makinak egitten imajinatzen dot nere burua.



Iosu Gil, 11 urte

HIZKI ZOPA

- * - Idazteko erabiltzen dugun tresna.
- * - Fruitu berde bat.
- * - Arbelan idazteko tresna.
- * - Pertsona batzuk ikusteko erabiltzen dutena.
- * - Grafitoz egindako tresna.
- * - Hitzen esanahia aurkitzeko tokia.
- * - Ateak irekitzeko erabiltzen den tresna.
- * - Irakasten duten pertsonak.
- * - Mikel izeneko Realeko jokalaria bat.
- * - Esaldi bat osatzeko beharrezkoak diren elementuak.



ZER TRISTEN DOTSAZU?

Erromerixa zalia zara?

Ekainaren 7an Erromeria egingo da Ezozin, Euskal Jaiak direla eta. Lehengo sasoietan herrian eta inguruetan askotan egiten ziren eta bertan batzen ziren gazteak dantzara.

OIHANA MENDIZABAL

Administrarixa



Bai, askogustatzen jata. Penia da gutxi egoten dirala gaur egunian. Ezozira gustora juango naiz, basarritarrez jantzitta. Gainera Larrain Dantzako ikastaruan dihardut eta bertan be egingo dogu.

ALEX ALBERDI

Langabetua



Ez, ez jata bape gustatzen, eta gaztiagotan be antzera; ez naiz oso zalia izan. Ezoziko erromerixiaz ez nekixan ezer eta ez dakit juango naizen be. Egunan arabera.

IÑAKI GABILONDO

Elektrizistia



Sasoi baten bai. Oin zahartu egin gara eta. Agarrauan eta sueltuan egitten genduan, baina agarrauan gustorago. Ligatu be egitten genduan, hamarreko bi edo. Gogorrak ginan orduan.

MARISA EZENARRO

Irakaslia



Nire garaixan bai. Antzina juaten ginunazen erromerixetara asko, baina urtien poderioz, alde batera laga genduzen. Suel-tuan gustorago egitten genduan; ikasi be egin genduzen, euskal dantzak eta.

Erromeria...

Neskatan egin juat!!

KOMIKIXA



Disceinua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Musika eskolan matrikulazioa zabalik



Matrikulazio kanpainaren barruan, eguaztenean Musika Eskolako txikienek auditorio bat eskaini zuten, irakasleekin batera, gurasoen aurrean. Musika tailerra eta lengoia musikaleko ikasleek parte hartu zuten. Matrikulazio epea zabalik egongo da ekainaren 20a bitartean.

Plazatik Gaztetxera bertso txapelketa



Bertsolari gazteei plaza berriak eskaini eta bide batez gaztetxeen arteko loturak sendotzeko, Plazatik Gaztetxera bertsolari gazteen VII. Txapelketaren 3. kanporaketa egingo da gaur Gaztetxean. Afaria 21:00etan hasiko da eta saioa 22:30etan. Bertsolarien artean, Jone Uria, Ander Elortegi, Mikel Artola, Aitor "Toko", Andere Arriolabengoa eta Eneko Bertainaga soraluzetarra izango dira. Finala maiatzaren 31an jokatu da Mutrikuko Gaztetxean.

Erromeria eguna egingo da Ezozin Euskal Jaien barruan

Ekainaren 7a Erromeria eguna izango da Soraluzean. Goizeko 11etan salda eta txorixoa banatuko dira Plaza Barrixan eta ondoren txistulari eta trikitilariekin kalejiran Ezozira igoko dira. Ordu biak bitartean, erromeriarekin dantzatu eta Larraint dantza eta lapurdiko dantzari xelebreen ikuskizunaren txanda izango da. Arratsaldean, Tapia eta Leturiarekin ilundu arteko erromeria egingo da, Larraint dantza herrikoa eta dantzarien ikuskizuna tarteko.

Bazkaria etxetik

Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du eta bertan mahaiak eta aulkiak prest egongo dira. Lekua gordetzeko, Iratxo goxodendan eta tabernetan izena eman behar da. Antolatzaileek basarritarrez janzteko gonbitea luzatu dute.



Hitzaletia eta umeentzako jolasak

Ekainaren lehen XVIII. Haurren Euskal Jaia egingo da, domekan. Inguruko herrietatik dantzari gazteak etorriko dira eta egun osoan zehar herriko dantzari txikiekin kaleak alaituko dituzte. Ekainaren 5ean Jon Maiak "Apaizac Hobeto" espedizioari buruz berba egingo du. Ekainaren 6an, haurrentzako arrantzale jolasak antolatu dituzte iluntzerako. Ekainaren 11an Ahotsak proiektuaren aurkezpenarekin itxiko dira Euskal Jaia. ☺

Jaietako egitarauaren azalerako kartel lehiaketa

2008ko jaietako egitarauak izango duen azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udaleko Kultura Batzordeak. Arauen artean, pertsona irudiak marraztuz gero, gizon-emakumeen kopurua orekatua izan beharko da. Lanak aurkezteko epea ekainaren 20an, eguadiako ordu bietan bukatuko da. 300 euroko saria jasoko du irabazleak, eta 100 eurko akzesita eman dezake epaimahaiak. Sari banaketa uztailearen 11an egingo da, erakusketaren ostean. Zehaztasun gehiagorako, Plaentzia.



2007ko jaietako egitarauaren azala.

com-en kontsultatu edo Udaletxera jo. ☺

ARMENDIA
JATETXEA

Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak

Santa Ana kalea
20870 SORALUZE
T. 943 75 13 83

Mendigaina zeharkatuko du BTT zirkuituak

Udaberri bukaeran, BTT zentroa irekiko dute Debarrean, Gipuzkoako lehe-

nengoa eta EAeko hirugarrena izango dena. Zentroaren harrera gunea Elgoibarko Mintxeta Kirolgunean kokatuko da. 397,70 km izango dira guztira, zailtasun maila askotako 16 ibilbidetan banatuak, eta horietariko bat Karakate eta Irukurutza arteko gaitetik pasatuko da.

Euskadiko BTT Zentroen Sarearen webgunean, www.euskadibttzentroak.com webgunean, txirringularientzako ibilbideen, aktibitateen eta GPS erreferentzien informazioa eskainiko da. 📍



EMAITZAK

PILOTA

Titín III - Laskurain 16
Xala - Goñi III 22

Titín III - Pascual 22
Galarza V - Laskurain 12

Titín III - Eulate 14
Mtz de Irujo - Laskurain 22

FUTBOLA

Mutriku 6 – Sora 1 (Erreg)

AGENDA

PILOTA

Astelehena 26, 16:30ean
Tolosan
Xala – Eulate
MTZ de Irujo - Laskurain

Sora bigarren mailara jeitsi da

Soraluze Futbol taldeko erreionalak bigarren mailan jokatuko du datorren denboraldian, sailkapenean azkenurreko postuan geratu da eta. 📍

Pilota txapelketa umeentzat

Asteburu honetan umeen pilota txapelketa hasiko da Soraluzeko kiroldegian, goizeko 10etatik 13ak bitartean. 32 umeek eman dute izena eta bi kanporaketa jokatu ostean, maiatzaren 24 eta 31an, ekainaren 7an izango dute finala. 📍

ARRANO
taberna
etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua
etxera

PC-PREST
Informatika Zerbitzuak
PC konponketa guztiak,
instalazioak, erosketak...
660522366 Suar Aizpuru Soraluze

GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

ZORION AGURRAK



Garazi Prieto Fernandez
Maiatzan 13an jaixua
Ongi etorri, politta!
Etxekuen partez.



Idoia eta Uxue
7. urtebetetzea
muxu asko eta ez segi
sorginak izaten!



Naroa Ros Gil
Maiatzan 18xan 2 urte
Zorionak txiki!
Etxekoen partez.



Jon Lopez
Maiatzan 20xan 3 urte
Zorionak eta muxu handi bat
famiariaren partetik!



Nagore Caballero Mendizabal
Maiatzan 30ian urtebete
Zorionak etxeko txikiari!
Muxu handi bat, familia guztia
eta bereziki Jonen partez.



Lara Ballesteros
Maiatzan 30ian 10 urte
Zorionak guapa!
Etxekuen partez.



Enara Oñederra Rascon
Maiatzan 31an 18 urte
Zorionak Enara!!!
Oin arte bezain alai eta
jator izaten jarraitu.
Etxekuen partez.



Ane Larreategi
Ekainan 2xan 25 urte
Zorionak politta!
Erromerixa egunian
ospatuko jonau!



Marisa Tornos
maiatzan 14an
Urtian urtian guapiago
zare! Karlos zure anai
eta aita-puntakoaren
partez.



**Mariasun Garzia eta
Mila Garzia**
Maiatzan 23 eta 24an urte
bakan batzuk
Zorionak Amameri!
Oier, Eneko, Amultz eta
Garaziren partez.

Udako Euskal Unibertsitatea



Bertsolaritza, Emakumea eta inmigrazioa, Linux sistema, Energia, Berriztagarriak, Ipuin-kontalaritza, Bitartekaritza gazteekin, Soziologia, Biodantza, Antzerkilaritza, Gorputz adierazpena eta beste asko! Soraluzeko Udalak dirulaguntzak ematen ditu.

Informazioa eta matrikulazioa: www.ueu.org

jaiotakoak



GARAZI PRIETO FERNANDEZ

hildakoak



ITZIAR BOLUMBURU ARRIETA

LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► Zein izan zan Marcelina Arluziaga?

- 1- Bailarako tradizio eta historiaren ikerlari eta idazlia
- 2- Dantzari ospetsua
- 3- Tren estazioko zaindaria

► **Saria:** **Euskal Tonbolako** 30 boleto

► **Irabazlea:** Angelita Pia

► **Gayarre Zinema...**

1927 urtian eraiki zan, Gabolatz kalin hasieran zeren ortuetako baten. Zine mutua emoten zebenian pianola batek doinuak jotzen zittuan. 1972 urtera arte zinia, antzerkixak eta musika jaialdixak egitten ziran.



ARGAZKI ZAHARRA



EZOZIKO ERROMERIXIA 1913AN

Ezoziko jaixetan erromerixia egitten zan eta han batzen ziran gaztiak alkarrekin dantzan egittera. Mutilak txapela, txakertia eta fraga elegantiak jantzitta; neskak, orkatilarainoko gona luziak, alkondaria eta ilia batuta. Danak abarketa zurixekin.

Soltian dihardue dantzan argazkixan, alkarri heldu bare. Goikaldian, bikoterik bare edo dantzarako gogorik bare geratzen ziranak ageri dira, dantzarixeri begira. ☺



DORLETA BEGIL PEREZ

BIGARREN URTEURRENA

Bi urte zure irrifarre gabe, baina egunero gure bihotzean zaude.

Etxekuak.



ITZIAR BOLUMBURU ARRIETA

2008KO MAIATZAREN 16AN HIL ZEN
48 URTE ZITUELA.
GOIAN BEGO

Argi bat itzali da
hemen lurrean
berri bat piztu da,
han, zeru ederrean.
Beti jarraituko duzu
gure bihotzean.

Ez agurrik, Ez adiorik.
Gero arte baizik.